




246 ZK.KO DEKRETUA



Oiartzungo haranean, bi mila eta bederatziko martxoaren hogeita seian.

Ikusirik 2009ko otsailaren 26ko Alkatetzaren 142 zk.ko Dekretu bidez Jesus Berasategui Ochoa, Edurne Aperribai Ulacia eta Carlos Callejo Gonzalez arkitektoei Elizalde auzoko Elizalde Eskolako jangela handitzeko exekuzio proiektua idazteko lanen behin-behineko esleipena egin zela.

Ikusirik orain administrazio-baldintza zehatzen agiriko 20. atalean jasotako baldintzak bete dituztela.

Kontuan hartuz administrazio orokorreko teknikariak gaiaren inguruan idatzitako txostena.

Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau **ERABAKI DUT**:

Jesus Berasategui Ochoa, Edurne Aperribai Ulacia eta Carlos Callejo Gonzalez arkitektoei Elizalde auzoko Elizalde Eskolako jangela handitzeko exekuzio proiektua idazteko lanak esleitzea behin betiko izaeraz, beti ere 26.415,52 €-ko zenbatekoagatik (BEZ barne) eta 2 hilabeteko gauzatze epearekin.

Ordainketa udal aurrekontuko 1 0302.643.432.00.01 (A/5099-2008) diru atalaren kargura egingo da.

Aitor Etxeberria Txurio alkate-lehendakari jaunak agintzen eta sinatzen du, eta neuk, idazkari naizenez, ziurtatzen.

